



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2023ko urriaren 30a

26. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—11-23/CCO-00021. 2023ko maiatzaren 28ko Nafarroako Parlamenturako hauteskunderen ondoriozko hauteskunde-kontabilitatei buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

11-23/CCO-00021. 2023ko maiatzaren 28ko Nafarroako Parlamenturako hauteskundeen ondoriozko hauteskunde-kontabilitateei buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina.

2023ko urriaren 2an eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak 2023ko maiatzaren 28ko Nafarroako Parlamenturako hauteskundeen ondoriozko hauteskunde-kontabilitateei buruzko txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko

Erregelamenduaren 230. artikuluan ezarritakoarekin bat, honako hau ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.
2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.
3. Erabaki hau Kontuen Ganberari jakinaraztea.

Iruñean, 2023ko urriaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

AURKIBIDEA*Orrialdea*

I. SARRERA	4
II. HELBURUA ETA NORAINOKOA	4
II.1 Helburua.....	4
II.2 Norainokoa.....	5
III. IRITZIA.....	6
IV. IRITZIAREN OINARRIA.....	6
V. FISKALIZAZIOAREN FUNTSEZKO AUZIAK	6
VI. BESTE AUZI BATZUEI BURUZKO PARAGRAFOA	7
VII. FORMAZIO POLITIKOEN ERANTZUKIZUNA.....	8
VIII. KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA	8
IX. GOMENDIOAK.....	9
I. GEHIGARRIA. ARAU-ESPARRUA.....	10
II. GEHIGARRIA. HAUTESKUNDE-GASTUEN MUGAK, GEHIENEKO DIRULAGUNTZAK ETA DIRULAGUNTZEN AURRERAKINAK	10
II.1 Hauteskunde-gastuen mugak	10
II.2 Hauteskundeetako gehieneko dirulaguntzak	10
II.3 Dirulaguntzen aurrerakinak	12
III. GEHIGARRIA. FISKALIZAZIOKO BESTE OHAR ETA AURKIKUNTZA BATZUK	12
III.1 Ohar orokorrak	12
III.2 Formazio politikoen kontabilitateak eta dirulaguntzak	13
III.2.1 Unión del Pueblo Navarro	14
III.2.2 Nafarroako Alderdi Sozialista-PSOE	16
III.2.3 Euskal Herria Bildu.....	18
III.2.4 Geroa Bai	20
III.2.5 Alderdi Popularra	22
III.2.6 Contigo - Zurekin.....	24
III.2.7 Vox	26
IV. GEHIGARRIA. HAUTESKUNDE-GASTUEN ETA -DIRULAGUNTZEN LABURPEN-TAULA.....	28
BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK	29
BEHIN-BEHINEKO TXOSTENA DELA-ETA AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMANDAKO ERANTZUNA	32

I. SARRERA

Kontuen Ganberak, abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearekin bat eta Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak arautzen dituen azaroaren 17ko 16/1986 Foru Legeko (aurrerantzean, NPHFL) 47. artikuluan eta Hauteskunde Araubide Orokorri buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan (aurrerantzean, HAOLO) xedatutakoa betez, Nafarroako Parlamenturako 2023ko maiatzaren 28ko hauteskundeen ondoriozko hauteskunde-kontabilitateen fiskalizazioa egin du.

Landa-lana 2023ko abuztuan egin du auditoriako bi teknikaririk eta auditore batek osatutako lantalde batek. Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen lankidetzaren izan dute.

Jarduketa honen emaitzak formazio politikoen hauteskunde-administratzaileei azaldu zitzaizkien, kasua bada egokitzat jotzen zituzten alegazioak aurkez zitzaten, Nafarroako Kontuen Ganberari buruzko abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeko 11.2 artikuluan aurreikusitakoari jarraituz. Ezarritako epea iraganik, Vox alderdi politikoa alegazio bat aurkeztu du, eta txosten honetan jaso da, Ganbera honen erantzunarekin batera.

Eman diguten laguntzarengatik, eskerrak eman nahi dizkiegu lan honetan esku hartu duten formazio politikoetako langileei.

Txosten honetako datu ekonomiko guztiak eurotan eman dira, biribilduta, zentimorik ez agertzeko. Emandako datuek eta ehunekoez beti adierazten dute balio zehatz bakoitza biribilduta, eta ez datu biribilduen batura.

II. HELBURUA ETA NORAINOKOA

II.1 HELBURUA

NPHFLren 47. artikuluan ezarritakoaren arabera, honako hauek dira lan honen helburuak:

- Iritzia ematea Nafarroako Foru Komunitatearen dirulaguntzak jasotzeko eskatzen diren baldintzak bete dituzten edota dirulaguntza horien kargurako aurrerakinak eskatu dituzten formazio politikoen¹ aurkeztutako hauteskunde-kontabilitateen legezketasunari buruz.
- Nafarroako Parlamentuari eta Nafarroako Gobernuari jakinaraztea hauteskunde-kontabilitate horien erregulartasuna eta, horien arabera, formazio politiko bakoitzari dagozkion hauteskundeetako dirulaguntzen zenbatekoak, NPHFLn ezarritakoaren arabera.
- Dirulaguntzak ukatzea edo murriztea proposatzea, antzematen bada kontabilitate-irregulartasunak daudela edo ez direla betetzen hauteskundeetako gastu eta diru-sarrerei buruz legez ezarritako mugak.

¹ Alderdi politikoak, federazioak, koalizioak eta hautesle-elkartek.

II.2 NORAINOKOA

Fiskalizazio honen norainoko objektiboa dira aurreko paragrafoan adierazitako formazio politikoei —NPHFLren 46. artikularekin bat— Ganbera honi nahitaez aurkeztu behar dizkioten hauteskundeetako gastu eta diru-sarreraren kontabilitateak. 2023ko maiatzaren 28ko Nafarroako Parlamenturako hauteskondeez bezainbatean, honako formazio hauek: 'Unión del Pueblo Navarro', 'Nafarroako Alderdi Sozialista – PSOE', 'Euskal Herria Bildu', 'Geroa Bai', 'Alderdi Popularra', 'Podemos + Ezker Batua + Batzarre + Aliantza Berdea + Berdeak Equo' (aurrerantzean, 'Contigo – Zurekin') eta 'Vox'.

Aipatu hauteskundeetan parte hartu zuten gainerako formazio politikoei ez zuten parlamentuko ordezkariarik lortu, eta ez zuten eskatu hauteskundeetako dirulaguntzen aurrerakinik; beraz, NPHFLk ez ditu behartzen haien hauteskunde-kontabilitateak Ganbera honi aurkeztera.

Gure fiskalizazioaren jomuga dira soilik formazio politikoei 2023ko maiatzaren 28an Nafarroako Parlamenturako egindako hauteskundeetako buruz aurkeztutako kontabilitateak. Egun berean udal-hauteskundeak egin ziren. Kontuen Auzitegiak fiskalizatu behar ditu horien hauteskunde-kontabilitateak. Hortaz, txosten honen norainokoan ez dago sartuta HAOLoren 131.2 artikulua bi hauteskunde-prozesu horietan parte hartu duten formazio politikoei ezarritako gastu-muga betetzen ote den berraztertzea.

Bestalde, indarrean dagoen legeriaren arabera, Kontuen Auzitegiari dagokio formazio politikoen ekonomia- eta finantza-jarduera osoa kontrolatzea, eta, beraz, hauteskunde-gastuak finantzatzeko aldera beraien diruzaintza arruntetik jarritako funtsen jatorria fiskalizatzea.

Aplikatzekoa den araudian —txosten honen I. gehigarrian adierazita dago— xedatutakoa betetzeko, batez ere honako alderdi hauek fiskalizatu ditugu gure lanean:

Alderdi orokorrak

- Ziurtatzea hauteskunde-kontabilitatea lege ezarritako epean aurkeztu dela eta eskatutako kontabilitate- eta justifikazio-dokumentazioa barne hartzen duela.
- Egiaztatzea kontabilitate-informazioa Nafarroako Parlamenturako 2023ko maiatzaren 28ko hauteskundeetako buruzkoa dela soilik.
- Berraztertzea aurkeztutako kontabilitateko egoera-orriak koherenteak direla eta kontabilitatea bat datorrela formazio politikoei egokitutako kontabilitate-planeari jasotako printzipio orokorrekin.

Diruzaintza

- Ziurtatzea hauteskundeetako diru-sarreraren eta gastuen kobrantza eta ordainketa guztiak hauteskunde-prozesu honetarako irekitako banku-kontuen bidez egin direla, eta kontu horiek ez dutela beste prozesu batzuei lotutako kobrantzarik eta ordainketarik jasotzen.

Diru-sarrerak

- Ziurtatzea hauteskunde-gastuak ordaintzera bideratutako funts guztiak, edozein dela ere haien jatorria, hauteskundeetarako kontu korranteetan sartu direla.
- Hauteskunde-prozesua finantzatzeko erabili diren baliabide guztien jatorria identifikatzea eta ziurtatzea hauteskunde-gastuei aurre egiteko funtsak jartzen dituztenei araudiak ezartzen dizkien betebeharrak betetzen direla.
- Egiaztatzea errespetatu dela araudiak pertsona fisikoek edo juridikoek formazio politiko berari egindako ekarpenei dagokienez araudiak ezartzen duen 10.000 euroko muga.

Gastuak

- Ziurtatzea formazio politikoek deklaraturako hauteskunde-gastuak behar bezala justifikatuta daudela, aplikatzekoa zaien araudian ezarrita daudenak direla, horretarako epealdi egokian egin direla eta hauteskundeetarako kontu korrontearen bidez ordaindu direla.
- Ziurtatzea ez direla gainditu hauteskunde-gastuei dagokienez NPHFLk ezarritako gehieneko mugak, zeinak txosten honen II. gehigarrian zehaztuta baitaude.

Hauteskunde-dirulaguntzak

- Kalkulatzeko NPHFLrekin bat formazio politiko bakoitzari legozkiokeen dirulaguntzen zenbatekoa.

III. IRITZIA

Kontuen Ganberak —abenduen 20ko 19/1984 Foru Legeak esleitzen dizkion eskumenak baliatuz eta NPHFLn ezarritakoa betez— fiskalizatu egin ditu 2023ko maiatzaren 28an egindako Nafarroako Parlamenturako hauteskundearen harira dirulaguntzak jasotzeko exijitutako betekizunak bete dituzten formazio politikoaren hauteskunde-kontabilitateak.

Gure ustez, hauteskunde-kontabilitate horiek bat datoz, alderdi esanguratsu guztietan, NPHFLn hauteskunde-finantzaketarako aurreikusitako dirulaguntzak jasotze aldera aplikatzekoa den araudiarekin.

Ez da bidezkoa ezin formazio politikori dagokion dirulaguntza ukatzeko edo murrizteko proposamenik egitea, NPHFLren 47.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, kontabilitateko irregulartasunak edo hauteskundeetako gastuen eta diru-sarreraren mugak betetzen ez direla hautematen den kasuetarako.

IV. IRITZIAREN OINARRIA

Kanpo-kontrolerako erakunde publikoek erabakitako funtsezko fiskalizazio-printzipioen arabera egin dugu fiskalizazioa, eta, zehazki, legezketasuna betetzeari buruzko fiskalizazioaren gaineko ISSAI-ES 400 arauan ezarritakoaren arabera; halaber, kanpo-kontrolerako organoen fiskalizazio gida praktikoa (GPF-OCEX) erabili ditugu. Arau horien indarrez dugun erantzukizuna aurrerago deskribatzen da, txosteneko “Kontuen Ganberaren erantzukizunak” atalean hain zuzen ere.

Fiskalizazio honen xede diren hauteskunde-kontabilitateak aurkeztu dituzten formazio politiko-ekiko independenteak gara, legezketasuna betetzeari buruzko fiskalizazioan aplikatu behar ditugun eskakizun etikoekin eta independentzia babestearen arlokoekin bat, entitatearekiko independenteak gara, fiskalizazio publikoko jarduerari buruzko araudiak exijitzen duen bezala.

Gure ustez, lortu dugun auditoria-ebidentziak behar adinako oinarria eta oinarri egokia jasotzen du gure iritzia emateko.

V. FISKALIZAZIOAREN FUNTSEZKO AUZIAK

Fiskalizazioaren funtsezko auziak dira, gure iritzi profesionalaren arabera, esanahi handiena izan dutenak legezketasuna betetzeari buruz egin dugun fiskalizazioan. Auzi horiek betetzeari buruz egin dugun fiskalizazioaren testuinguruan jorratu ditugu, eta ez dugu bereiz azalduko horien gaineko iritzirik.

Erabaki dugu gure fiskalizazioan ez dugula funtsezkotzat jotzen den jakinarazi beharreko konturik.

VI. BESTE AUZI BATZUEI BURUZKO PARAGRAFOA

NPHFLren 48. artikularekin bat, txosten hau Nafarroako Gobernuari igorri eta hurrengo hila-betean, foru-lege proiektu bat aurkeztuko dio Nafarroako Parlamentuari, formazio politikoei esleitu beharreko dirulaguntzen zenbatekoa adinako kreditu berezia emateko.

Dirulaguntza eta formazio politiko bakoitzari dagokion kitatu gabeko zenbatekoa kalkulatu ditugu, kontuan hartuta hauteskunde-gastuen lege-mugak, gehieneko dirulaguntzak eta gaurdaino emandako dirulaguntzen aurrerapena —txostenaren II. gehigarrian aipatuak—, baita formazio politikoei aurkeztutako kontabilitateak eta gure fiskalizazioaren emaitzak —III. gehigarrian labur azaldu da datoz—.

Horren arabera, formazio politikoei honako dirulaguntza hauek jasoko dituzte:

Formazio politikoa ²	UPN	PSN-PSOE	EH Bildu	Geroa Bai	PP	Contigo-Zurekin	Vox	Guztizkoa
Aurkeztutako gastuak	488.784	313.542	353.158	341.161	50.256	198.352	51.839	1.797.092
Gastu onartuak	488.337	311.171	345.286	333.821	50.256	198.352	51.742	1.778.965
<i>Jaso beharreko dirulaguntza, guztira</i>	<i>418.371</i>	<i>311.171</i>	<i>323.058</i>	<i>241.576</i>	<i>50.256</i>	<i>198.352</i>	<i>51.742</i>	<i>1.594.525</i>
Diruz lagundutako %, gastu onartuekiko	% 86	% 100	% 94	% 72	% 100	% 100	% 100	% 90
Lehen aurrerakina (2023ko maiatzaren 3a)	95.830	56.616	75.475	73.536	12.777	57.184	-	371.419
Bigarren aurrerakina (2023ko abuztuaren 30a)	142.872	105.023	86.282	66.950	31.392	29.396	20.005	481.920
<i>Kitatu gabeko dirulaguntza</i>	<i>179.670</i>	<i>149.532</i>	<i>161.300</i>	<i>101.090</i>	<i>6.087</i>	<i>111.771</i>	<i>31.737</i>	<i>741.186</i>

Nafarroako Parlamentuan ordezkartza izatea lortu duten formazio politikoei deklaratu dituzten hauteskunde-gastuek 1.797.092 euro egiten dute guztira; horietatik, 1.778.965 euro (ehuneko 99) onartu ditugu.

Hauteskunde-dirulaguntzen guztizkoa 1.594.525 eurokoa da, eta onartutako gastuen ehuneko 90aren finantzatzen du.

Kitatu gabeko dirulaguntzen zenbatekoa 741.186 euro da, behin kenduta Nafarroako Gobernuak 2023ko maiatzaren 3ko eta abuztuaren 30eko erabakien bidez onetsitako dirulaguntza-aurrerakinak.

² UPN: Unión del Pueblo Navarro. PSN-PSOE: Nafarroako Alderdi Sozialista – PSOE. PP: Alderdi Popularra.

VII. FORMAZIO POLITIKOEN ERANTZUKIZUNA

Hauteskunde-administratzaileak dira formazio politikoek egindako hauteskundeetako diru-sarrera eta gastu guztien erantzule, bai eta horien kontabilitatearenak ere. Kontabilitateak egiazkoa izan behar du, hauteskunde-prozesuaren diru-sarrera eta gastu guztiak fideltasunez islatu behar ditu eta Kontabilitate Plan Orokorreko printzipio nagusietara egokitu behar du.

Halaber, haien ardura da Kontuen Ganberari hauteskundeetako diru-sarrera eta gastuei buruzko kontabilitate zehaztua eta dokumentatua aurkeztea, aplikatzekoa den araudiaren arabera.

Formazio politikoaren barne kontroleko sistemak bermatu behar du hauteskunde-jardueraren iruzurraren edo errakuntzaren ondoriozko lege-urraketarik eta oker materialik gabekoa dela.

VIII. KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA

Gure helburuak dira arrazoizko ziurtasun bat lortzea, formazio politikoek aurkeztutako hauteskunde-kontabilitateetan ez-betetze aipagarriak ez egoteaz, eta fiskalizazio-txosten bat ematea, gure iritzia eta —hala badagokio— formazio politikoari dagokion dirulaguntza ukatzeko edo murrizteko gure proposamena jasotzen dituen. Txosten hori Nafarroako Parlamentura eta Nafarroako Gobernura igorri beharko da, NPHFLk ezarritako hauteskunde-dirulaguntzak ematearen ondorioetarako.

Arrazoizko ziurtasuna lortzea esatean ziurtasun maila handia lortzea esan nahi dugu, baina horrek ez du bermatzen fiskalizazio publikoaren jarduerari buruzko araudiari jarraikiz egindako fiskalizazio batek beti harrapatuko duenik ez-betetze aipagarri bat, baldin eta halakorik badago. Ez-betetzeak iruzurraren edo errorearen ondorio izan daitezke, eta akats materializat jotzen dira Kontuen Ganbera honen irizpideak aplikatuta.

Fiskalizazioaren atal gisa, eta kanpo kontroleko organoen fiskalizazio-jardueraren araudi erregulatuarekin bat etorriz, gure iritzi profesionala aplikatzen dugu, eta eszeptizismo profesionalerako jarraitzea eusten diogu auditoretza osoan. Gainera:

- Iruzur edo errorearen ondoriozko ez-betetze aipagarriak izateko arriskuak identifikatu eta baloratzen ditugu, auditoretzako prozedurak diseinatzen eta aplikatzen ditugu arrisku horiei erantzuteko, eta auditoretzako ebidentzia nahikoa eta egokia lortzen dugu gure iritziari oinarria emateko. Iruzurraren ondoriozko ez-betetze aipagarri bat ez atzemateko arriskua handiagoa da errorearen ondoriozko kasuan baino; izan ere, iruzurra dagoenean tartean izan daitezke kolusioa, faltsutzea, berariazko omisioak, berariazko adierazpen okerrak edo barne-kontrolaren saihestea.

- Barne-kontrola dela-eta fiskalizatorako muntazkoa den ezagutza lortzen dugu inguruabarren arabera egoki diren auditoretza-prozedurak taxutze aldera, eta ez, ordea, entitatearen barne-kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzirik emate aldera.

- Ebaluatzen dugu aplikatutako prozedurak egokiak diren eta erakundeko administratzaileek emandako informazioaren arrazoizkotasuna.

Hauteskunde-administratzaileekin harremanetan aritzen gara gai hauen inguruan, besteak beste: planifikatutako auditoretza-proben norainokoa eta haiek egiteko unea, auditoretzan aurkitutako gorabehera adierazgarriak, bai eta fiskalizazioan zehar identifikatzen ahal dugun barne-kontrolerako edozein akats muntadun ere. Hauteskunde-administratzaileari jakinarazi zaizkion alderdien artean, zehazten dugu zein izan diren betetzearen fiskalizazioan garrantzi handienekoak eta, horrenbestez, auditoretzako funtsezko gaiak.

IX. GOMENDIOAK

Legezkotasuna betetzeari buruzko fiskalizazio-lan honen ondorioz, *gomendatzen dugu eskumena dutenei sustatzea hauteskunde-araudia berrikustea, modu zehatzagoan definitzeko HAO-LOren 130. artikuluan jasotako gastu-kontzeptuak eta prentsan nahiz irratian egiten den publizitateari dagokionez 58. artikuluan aipatzen den mugapena, aintzat hartuta informazioaren eta komunikazioaren eta Interneten garapena, bai eta prentsa digitala, plataforma anitzeko komunikabideak, sare sozialak eta abar existitzea ere.*

José Javier García Logroño auditorea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, araudi indardunak ezarritako tramiteak bete ondoren.

Iruñean, 2023ko irailaren 25ean

Kontuen Ganberako lehendakaria: Ignacio Cabeza del Salvador

I. GEHIGARRIA. ARAU-ESPARRUA

Fiskalizazio honetan aplikatzekoa den araudi nagusiari dagokionez, honako hau da kontuan hartu beharrekoa:

- 16/1986 Foru Legea, azaroaren 17koa, Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak arautzen dituena.
- 5/1985 Lege Organikoa, ekainaren 19koa, Hauteskundeen Araubide Orokorrari buruzkoa, NPHFLn ezarri gabeko orotan aplikatzekoa, azken horren lehen xedapen gehigarriaren arabera.
- Nafarroako Foru Komunitateko lehendakariaren apirilaren 3ko 3/2023 Foru Dekretua, Nafarroako Parlamenturako hauteskundeetarako dei egiten duenak.
- Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren apirilaren 4ko 24/2023 Foru Agindua, zeinaren bidez ezartzen baitira Nafarroako Parlamenturako 2023ko hauteskundeetara aurkezten diren alderdi politikoez, federazioez, koalizioez eta hautesle-elkarteek egin ahal dituzten hauteskunde-gastuen muga eta hauteskunde-jardueren ondoriozko dirulaguntzen zenbatekoa.
- Kontabilitate-plan bat, formazio politikoei eta Formazio Politikoen Jarduera ekonomiko-finantzarioa kontrolatzeko martxoaren 30eko 3/2015 Lege Organikoari —Kontuen Auzitegiaren Osoko Bilkurak 2018ko abenduaren 20an hartutako erabakiaren bidez onetsia eta Kontuen Auzitegiaren Lehendakariak 2018ko abenduaren 21ean emandako ebazpenaren bidez argitaratua—.
- Ebazpena, Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariak 2023ko apirilaren 21ean emana, jarraibide bat onesten duena Nafarroako Parlamenturako 2023ko maiatzaren 28ko hauteskundeen ondoriozko hauteskunde-kontabilitatearen fiskalizazioari buruz.

II. GEHIGARRIA. HAUTESKUNDE-GASTUEN MUGAK, GEHIENEO DIRULAGUNTZAK ETA DIRULAGUNTZEN AURRERAKINAK

II.1 HAUTESKUNDE-GASTUEN MUGAK

NPHFLren 43.1. artikulua ezartzen du formazio politiko bakoitzak Nafarroako Parlamenturako hauteskundeetan egin ditzakeen hauteskunde-gastuen gehieneko muga. 2023ko maiatzaren 28ko hauteskundeetarako, muga hori eguneratu da Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren apirilaren 4ko 24/2023 Foru Aginduaren bidez, eta 490.638 eurotan ezarri da. Muga horren ondorioetarako, ez dira honako kostu hauek zenbatuko: hautesleei propaganda, gutunazalak eta boto-paperak edo hauteskunde-publizitateko beste elementu batzuk zuzen eta pertsonalki igortzeak eragindakoak.

HAOLOren 55. eta 58. artikuluek ezartzen dutenarekin bat, egunkarietako eta titulartasun pribatuko irratietako kanpo-publizitateko eta publizitateko gastuek ezin dute gainditu lehen adierazitako gehieneko mugaren ehuneko 20. Beraz, hauteskunde hauetan, bi gastu mota horiek 98.128 eurotara mugatuta daude.

2023ko maiatzaren 28ko Nafarroako Parlamenturako hauteskundeetara eta egun berean egindako toki-hauteskundeetara aldi berean aurkeztu diren formazio politikoentzat, bi prozesuetarako hauteskunde-gastuen baterako muga HAOLOren 131.2. artikuluan ezarrita dator. Hauteskunde-prozesu horiei legezko mugetatik handiena izango da, Gorte Nagusietarako hauteskundeetan aplikatu behar diren litzatekeenaren ehuneko 25 gehituta. 'Helburuak eta norainokoa' II. atalean adierazi denez, gastu-muga horren betetzearen berrazterketa ez dago fiskalizazio-txosten honen norainokoa sartuta.

II.2 HAUTESKUNDEETAKO GEHIENEO DIRULAGUNTZAK

NPHFLren 44. artikulua arautzen ditu Nafarroako Foru Komunitateak Nafarroako Parlamenturako hauteskundeetan gutxienez eserleku bat lortu duten formazio politikoei eman beharreko dirulaguntzen gehieneko zenbatekoak, eta zehazten da inola ere ez dela dirulaguntzarik emanen egiazki eginiko hauteskunde-gastuen zenbatekoa gainditzen duenik.

2023ko maiatzaren 28ko hauteskundeetarako, zenbateko horiek Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren apirilaren 4ko 24/2023 Foru Aginduaren bidez eguneratu dira. Honako hauek ezarri dira:

- Hauteskunde-gastu arruntetarako dirulaguntza: hauteskundeetako emaitzen arabera kalkulatzen da; 14.206 euro ematen dira eserleku bakoitzeko, eta, horrez gain, 1,13 euro, lortutako boto bakoitzeko.
- Propaganda, gutun-azalak, boto-paperak edo hauteskunde-publizitatearen beste elementu batzuk zuzenean igortzeko dirulaguntza: 0,29 euro hautesle bakoitzeko, betiere jarduera hori egiazki egin dela justifikatu bada.

Zuzeneko igorpenak egiteko dirulaguntza horrek ezin du finantzatu erroldan agertzen diren hautesleena baino bidalketa-kopuru handiagoa, behin igorpen horietatik kanpo uzteko eskatu dutenak kenduta.

2023ko maiatzaren 28an Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak egin ondoren, hona eserlekua lortu duten formazio politikoek eskuratutako botoak eta eserleku kopurua, Nafarroako Hauteskunde Batzar Probintzialaren 2023ko ekainaren 6ko Aldarrikapen Aktaren arabera:

Formazio politikoa*	Botoak	Eserlekuak
Unión del Pueblo Navarro	92.392	15
Nafarroako Alderdi Sozialista-PSOE	68.247	11
Euskal Herria Bildu	56.535	9
Geroa Bai	43.660	7
Alderdi Popularra	24.019	3
Contigo-Zurekin	20.095	3
Vox	14.197	2
Guztira	319.145	50

* Gutxienez eserleku bat lortu duten formazio politikoak soilik jasota daude taulan.

Bestalde, Hautesle Erroldaren Bulegoko Probintzia Ordezkaritzak emandako informazioaren arabera, hautesle-kopurua —behin deskontatuta beraiek hala eskatuta hauteskunde-propagandako igorpen pertsonal eta zuzenak jaso nahi ez zituztenak— 506.042 zen.

Ondorioz, hauexek dira 2023ko Nafarroako Parlamenturako hauteskundeetan eserlekua lortu duten formazioek araudiaren arabera legezkiekeen gehieneko dirulaguntzak:

Formazio politikoa	Gehieneko dirulaguntza teorikoak				
	Hauteskunde-gastu arruntetarako			Zuzeneko igorpenetarako ³	Gehieneko dirulaguntzen guttizkoa
	eserlekuak direla eta	botoak direla eta	Guztira		
Unión del Pueblo Navarro	213.090	104.403	317.493	146.752	464.245
Nafarroako Alderdi Sozialista-PSOE	156.266	77.119	233.385	146.752	380.137
Euskal Herria Bildu	127.854	63.885	191.739	146.752	338.491
Geroa Bai	99.442	49.336	148.778	146.752	295.530
Alderdi Popularra	42.618	27.141	69.759	146.752	216.512
Contigo-Zurekin	42.618	22.707	65.325	146.752	212.078
Vox	28.412	16.043	44.455	146.752	191.207
Guztira	710.300	360.634	1.070.934	1.027.265	2.098.199

³ Gehieneko dirulaguntza hauteskunde-propaganda igortzeagatik igorpen horretatik kanpo uzteko eskatu ez duten hautesle gutzietan.

II.3 DIRULAGUNTZEN AURRERAKINAK

NPHFLren 45. eta 46. artikuluek formazio politikoei eman beharreko hauteskunde-dirulaguntzen aurrerakinak arautzen dituzte: lehen aurrerakin bat, Nafarroako Parlamenturako aurreko hauteskundeetan egokitutako dirulaguntzaren zenbatekoaren ehuneko 30era artekoa; eta bigarren aurrerakin bat, hauteskunde hauetan lortutako emaitzen arabera dagokien dirulaguntzaren zenbatekoaren ehuneko 45ekoa.

Nafarroako Gobernuak aurrerakin horiek eman ditu 2023ko maiatzaren 3an eta abuztuaren 30ean hartutako gobernu-erabakien bidez. Honako hauek dira formazio politiko bakoitzari emandako zenbatekoak:

Formazio politikoa	Lehen aurrerakina (% 30)	Bigarren aurrerakina (% 45)	Aurrerakinak, guztira
Unión del Pueblo Navarro	95.830	142.872	238.702
Nafarroako Alderdi Sozialista-PSOE	56.616	105.023	161.639
Euskal Herria Bildu	75.475	86.282	161.758
Geroa Bai	73.536	66.950	140.486
Alderdi Popularra	12.777	31.392	44.169
Contigo-Zurekin	57.184	29.396	86.580
Vox		20.005	20.005
Guztira	371.419	481.920	853.339

Formazio politikoez ezin izan zuten bigarren aurrerakina jaso haien hauteskunde-kontabilitatean, horiek aurkezteko epea uztailaren 31n amaitu baitzen, Nafarroako Gobernuak aurrerakin hori onartu aurretik.

III. GEHIGARRIA. FISKALIZAZIOKO BESTE OHAR ETA AURKIKUNTZA BATZUK

III.1 OHAR OROKORRAK

Egindako azterketatik, honako hau nabarmenduko dugu:

- Zazpi formazio politikoez hauteskunde-kontabilitatea legez ezarritako epearen barruan (2023ko uztailaren 31n amaitu zen) aurkezteko betebeharra bete dute.

- Guztiek hauteskunde-kontabilitateak eta dagozkien justifikazio-agiriak telematikoki eta ezarritako kanalaren bidez aurkeztu dituzte, eta Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariaren 2023ko apirilaren 21eko Ebazpenaren bidez onartutako fiskalizazio-instrukzioan zehaztutako formatu informatikoei eta nomenklaturari jarraituz.

- Formazio politiko guztiek egiaztatu dute hauteskunde-gastuak finantzatzeko jarri dituzten funtsak haien diruzaintzatik datozela.

- Oro har, formazio politikoez aurrez aipatutako fiskalizazio-instrukzioan ezarritako kontzeptuen arabera sailkatu dituzte gastuak; nolahi ere, horietako batzuk birsailkatu ditugu, gehigarri honen III.2. apartatuan adierazten den bezala.

- Oro har, aurkeztutako gastuak behar bezala justifikaturik daude eta hauteskunde-izaerakoak dira.

- Gastu arruntez bezainbatean, guztira 16.133 euro ez ditugu diruz laguntzeko modukotzat jo, honako hauei dagozkienak: Unión del Pueblo Navarro, Nafarroako Alderdi Sozialista – PSOE, Euskal Herria Bildu, Geroa Bai eta Vox. Onartu ez den zenbatekoaren ehuneko 77 HAOLOn aurreikusitako hauteskunde-gastuen artean ez dauden gastuei dagokie.

Gastuak ez onartzeak eragina du Nafarroako Alderdi Sozialista – PSOEek eta Voxek gastu arruntetarako jaso beharreko dirulaguntzen zenbatekoan.

Aitzitik, Unión del Pueblo Navarro, Euskal Herria Bildu eta Geroa Bairen kasuan, gastuak ez onartzeak ez du eraginik dirulaguntza honen zenbatekoan, onartutako gastuak gehieneko dirulaguntzaren zenbatekoa baino handiagoak dira eta.

- Hauteskunde-propaganda zuzenean igortzeagatiko gastuei dagokienez, ez dugu diruz laguntzeko modukotzat onartu Geroa Baik aurkeztutako 1.994 euroko gastu bat, ez baita aurkeztu dagokion justifikazio-dokumentazioa.
- Formazio guztiek errespetatu dute NPHFLren 43.1 artikuluan ezarritako hauteskunde-gastuaren muga, bai eta HAOLok kanpo-publizitateari (55. artikulua) eta prentsako eta titulartasun pribatuko irrati-emisoretako publizitateari (58. artikulua) buruz ezarritako mugak.
- Aurkeztutako kontabilitateen arabera eta HAOLoren 133. artikuluari jarraituz Kontuen Ganberari formazio politikoekin egindako eragiketen berri emateko betebeharra zuten hirugarren guztiek betebehara hori bete dute.

III.2 FORMAZIO POLITIKOEN KONTABILITATEAK ETA DIRULAGUNTZAK

Hurrengo apartatuetan, formazio politiko bakoitzerako, hauteskunde-gastuen eta horiek finantzatzeko erabilitako baliabideen azterketa laburbilduko dugu, formazio politikoek ekarpenak, hauteskunde-dirulaguntzen aurrerakinak eta ekarpen pribatuak barne. Kasua bada, formazio politikoek, behin hauteskundeetarako dirulaguntzak jasota, soberako baliabideak beren diruzaintza arruntean sartzen dituzte.

Era berean, NPHFLn ezarritakoaren arabera formazio politiko bakoitzari dagokion dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatu dugu. Hauteskunde-gastu arruntetarako dirulaguntzaren proposamena onartutako gastu arruntei dagokie, eta, bestalde, hauteskunde-propaganda igortzeagatiko dirulaguntzaren proposamena, kontzeptu horrengatik benetan egindako gastuekin; bi kasuetan, betiere NPHFLk ezarritako gehieneko zenbatekoak —txosten honen II. gehigarrian deskribatuak— errespetatuz.

Kalkulatutako dirulaguntzaren zenbatekotik abiatuta, orain arte onartutako aurrerakinak kenduta, likidatzeko dagoen dirulaguntzaren zenbatekoa lortu dugu. Kalkulu horretan sartu ditugu Nafarroako Gobernuak 2023ko maiatzaren 3ko eta abuztuaren 30eko erabakien bidez emandako aurrerakinak —Nafarroako Foru Ogasunari buruzko Legearen 45. eta 46. artikuluen arabera—, nahiz eta bigarren egun horretan onartutakoak ez dauden sartuta formazio politikoek hauteskunde-kontabilitateetan, zeinak aurretik aurkeztu baitziren.

III.2.1 Unión del Pueblo Navarro

Eskatutako informazio guztia duen kontabilitatea aurkeztu du formazio politikoak, horren barne dela hauteskunde-gastuen laburpeneko egoera-orri bat, fiskalizazio-instrukzioan ezarritako kategorien arabera sailkatuta.

Finantzaketa-baliabideak eta hauteskunde-gastuak 437.930 eta 488.337 euro izan dira, hurrenez hurren. Hona xehetasunak:

Aitorturiko baliabideak	
Alderdiaren ekarpena	342.100
Lehenbiziko dirulaguntza-aurrerakina	95.830
<i>Aitorturiko baliabideak, guztira</i>	437.930
Hauteskunde-gastuak	
A) Gastu arruntak	
Aitorturiko gastuak	387.906
Diruz lagungarriak ez diren gastuak	(447)
Hauteskunde-propaganda igortzeagatiko gastuak, kontzeptu horretan diruz lagungarriak ez direnak	-
<i>Onartutako gastu arruntak, guztira</i>	387.459
B) Zuzeneko igorpenengatiko gastuak	
Aitorturiko gastuak	100.878
Diruz lagungarriak ez diren gastuak	-
Propaganda igortzeagatiko hauteskunde-gastuak, guztira	100.878
Gehieneko dirulaguntza (egiazki egindako igorpenen kopuruaren arabera)	138.116
Zuzeneko igorpenengatiko gastuak, kontzeptu horretan diruz lagungarriak ez direnak	-
<i>Onartutako igorpenengatiko gastuak, guztira</i>	100.878
Onartutako hauteskunde-gastuak, guztira	488.337

- Aitorturiko baliabideak alderdiak egindako ekarpenetatik (342.100 euro) eta Nafarroako Gobernuak onetsitako hauteskunde-dirulaguntzaren lehen aurreraketik (95.830 euro) datoz.

Nafarroako Gobernuak 142.872 euroko bigarren aurrerakin bat eman zuen, 2023ko abuztuaren 30eko erabakiaren bidez onetsia, hauteskunde-kontabilitatea aurkeztu ondorengo.

- Aurkeztutako hauteskunde-gastuetan sartuta daude gastu arruntengatiko 387.459 euro, eta 100.878 euro, hauteskunde-propaganda zuzenean igortzeagatikoak. Hurrengo taulan gastu horiei buruzko xehetasunak ikus daitezke, HAOLoren 130. artikuluan aurreikusitako kategorien arabera⁴.

⁴ Taulan, 'Zuzenean edo zeharka botoa sustatzeko helburua duen propaganda eta publizitatea' kategoria (130. artikulua b letra) zatituta dator 'Kanpo-publizitatea', 'Prensa eta irrati pribatuetako publizitatea' eta 'Bestelako propaganda eta publizitatea' kategorietan, erakuste aldera publizitatearen aurreneko bi kategorietako gastuen zenbatekoa, HAOLoren 55. eta 58. artikuluek mugatuak, hurrenez hurren.

Gastuak kontzeptuka	Aurkeztuak	Onartuak eta birsailkatuak	Aldea
Posta eta zigiluak	34.451	34.451	-
Kanpoko publizitatea	81.673	75.710	(5.963)
Publizitatea: prentsa eta irrati pribatuak	75.142	75.414	272
Bestelako propaganda eta publizitatea	231.523	170.337	(61.186)
Hauteskunde kanpainako ekintzak egiteko kalkulak alokatzea	6.304	6.304	-
Aldi baterako langileentzako ordainsariak	-	-	-
Garraioaren eta joan-etorrien gastuak	11.880	11.880	-
Hauteskundeetako gutun-azalak eta boto-aperak egitea	2.858	2.858	-
Maileguen korrituak	-	-	-
Hauteskundeetarako beharrezkoak diren este gastu batzuk	44.954	111.383	66.430
Gastuak, guztira	488.784	488.337	(447)

Gastu horiek aztertuta, hona azpimarratzen ditugunak:

- Oro har, aurkeztutako gastuak zuzen justifikaturik daude, eta hauteskunde-izaerakoak dira. Kontzeptuen arabera gastu-aurkezpenen haien birsailkapen bat egin dugu, haien izaera espezifikoaren arabera.

- Onartu gabeko gastuak 447 eurokoak dira, HAOLok aurreikusitako hauteskunde-gastuen artean ez dauden kontzeptuengatik. Ez onartzeak ez dio eragingo jaso beharreko dirulaguntzaren zenbatekoari; izan ere, onartutako gastu arrunten guztizkoak mota horretako gastuetarako gehieneko dirulaguntzaren zenbatekoa gainditzen du.

- Ez da gainditu NPHFLren 43.1 artikuluan ezarritako hauteskunde-gastuaren muga, ez eta HAOLok kanpo-publizitateari (55. artikulua) eta prentsako eta titulartasun pribatuko irratietako publizitateari (58. artikulua) buruz ezarritako gastu-mugak ere.

- Gutun-azalen, boto-paperen, hauteskunde-propagandaren edo -publizitatearen igorpen zuzenen kopurua ez da maximoa baino handiagoa izan, hautesle-kopuruaren arabera baita.

- Hirugarrenen betebeharrak

Aurkeztutako kontabilitatearen arabera eta HAOLoren 133. artikuluari jarraituz, Kontuen Ganberari formazio politiko honekin egindako eragiketen berri emateko betebeharra zuten sei enpresek, betebeharrak hori bete dute.

- Proposamena

Ondorioz, honako hauek dira Unión del Pueblo Navarrori dagozkion dirulaguntzak:

Kitatu gabeko	gehieneko dirulaguntza teorikoa	Onartutako gastuak	Dagokion dirulaguntza
Hauteskunde-gastu arruntetarako	317.493	387.459	317.493
Hauteskunde-propagandako zuzeneko igorpenetarako	138.116	100.878	100.878
Dirulaguntza, guztira	455.609	488.337	418.371
Lehenbiziko dirulaguntza-aurrerakina (% 30)			95.830
Bigarren dirulaguntza-aurrerakina (% 45)			142.872
Ordaintzeko dagoen dirulaguntza, guztira			179.670

Nafarroako Gobernuak 2023ko maiatzaren 3ko eta abuztuaren 30eko erabakien bidez emandako aurrerakinak kontuan hartuta, ordaindu gabeko dirulaguntzen zenbatekoa 179.670 euro da.

III.2.2 Nafarroako Alderdi Sozialista-PSOE

Eskatutako informazio guztia duen kontabilitatea aurkeztu du formazio politikoak, horren barne dela hauteskunde-gastuen laburpeneko egoera-orri bat, fiskalizazio-instrukzioan ezarritako kategorien arabera sailkatuta.

Finantzaketa-baliabideak eta hauteskunde-gastuak 313.542 eta 311.171 euro izan dira, hurrenez hurren. Hona xehetasunak:

Aitorturiko baliabideak	
Alderdiaren ekarpena	256.926
Lehenbiziko dirulaguntza-aurrerakina	56.616
Aitorturiko baliabideak, guztira	313.542
Hauteskunde-gastuak	
A) Gastu arruntak	
Aitorturiko gastuak	206.923
Diruz lagungarriak ez diren gastuak	(2.371)
Hauteskunde-propaganda igortzeagatiko gastuak, kontzeptu horretan diruz lagungarriak ez direnak	-
Onartutako gastu arruntak, guztira	204.552
B) Zuzeneko igorpenengatiko gastuak	
Aitorturiko gastuak	106.619
Diruz lagungarriak ez diren gastuak	-
Propaganda igortzeagatiko hauteskunde-gastuak, guztira	106.619
Gehieneko dirulaguntza (egiazki egindako igorpenen kopuruaren arabera)	112.107
Zuzeneko igorpenengatiko gastuak, kontzeptu horretan diruz lagungarriak ez direnak	-
Onartutako igorpenengatiko gastuak, guztira	106.619
Onartutako hauteskunde-gastuak, guztira	311.171

• Aitorturiko baliabideak alderdiak egindako ekarpenetik (256.926 euro) eta Nafarroako Gobernuak onetsitako hauteskunde-dirulaguntzaren lehen aurreraketik (56.616 euro) datoz.

Nafarroako Gobernuak 105.023 euroko bigarren aurrerakin bat eman zuen, 2023ko abuztuaren 30eko erabakiaren bidez onetsia, hauteskunde-kontabilitatea aurkeztu ondorengoa.

• Aurkeztutako hauteskunde-gastuetan sartuta daude gastu arruntengatiko 204.552 euro, eta 106.619 euro, hauteskunde-propaganda zuzenean igortzeagatikoak. Hona xehetasunak:

Gastuak kontzeptuka	Aurkeztuak	Onartuak eta birsailkatuak	Aldea
Hauteskundeetako gutun-azalak eta boto-paperak egitea	106.619	106.619	-
Kanpoko publizitatea	30.751	34.148	3.397
Publizitatea: prentsa eta irrati pribatuak	25.795	25.795	-
Bestelako propaganda eta publizitatea	29.950	84.917	54.967
Hauteskunde kanpainako ekintzak egiteko lokalak alokatzea	19.036	10.760	(8.276)
Aldi baterako langileentzako ordainsariak	11.559	11.559	-
Garraioaren eta joan-etorrien gastuak	8.635	6.683	(1.952)
Posta eta zigiluak	-	-	-
Kredituen interesak	-	-	-
Hauteskundeetarako beharrezkoak diren beste gastu batzuk	81.196	30.689	(50.507)
Gastuak, guztira	313.542	311.171	(2.371)

Gastu horiek aztertuta, hona azpimarratzen ditugunak:

- Oro har, aurkeztutako gastuak zuzen justifikaturik daude, eta hauteskunde-izaerakoak dira. Kontzeptuen arabera gastu-aurkezpenen haien birsailkapen bat egin dugu, haien izaera espezifikoaren arabera.

- Onartu gabeko gastuak 1.704 eurokoak dira, HAOLok aurreikusitako hauteskunde-gastuen artean ez dauden kontzeptuengatik, eta 668 eurokoak hauteskundeetarako deialdia egiten den egunaren aurretik sortutako gastuengatik.

- Ez da gainditu NPHFLren 43.1 artikuluan ezarritako hauteskunde-gastuaren muga, ez eta HAOLok kanpo-publizitateari (55. artikulua) eta prentsako eta titulartasun pribatuko irratietako publizitateari (58. artikulua) buruz ezarritako gastu-mugak ere.

- Gutun-azalen, boto-paperen, hauteskunde-propagandaren edo -publizitatearen igorpen zuzenen kopurua ez da maximoa baino handiagoa izan, hautesle-kopuruaren arabera baita.

- Hirugarrenen betebeharrak

Aurkeztutako kontabilitatearen arabera eta HAOLoren 133. artikuluari jarraituz Kontuen Ganberari formazio politiko honekin egindako eragiketen berri emateko betebeharra zuten zazpi enpresek betebeharrak hori bete dute.

- Proposamena

Ondorioz, honako hauek dira Nafarroako Alderdi Sozialista - PSOERI dagozkion dirulaguntzak:

Dirulaguntza	Gehieneko dirulaguntza teorikoa	Onartutako gastuak	Dagokion dirulaguntza
